

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Beharrezkoak egingo zaizkigun baliabideak fisikoak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak dira.

### Baliabide fisikoak

Hurrengo baliabide fisikoak erabiliko ditugu:

- Apartamentu bat erosi dugu Donostian, bertan dauden gelak lan ezberdinetarako banatuta daude: bulegoa, tailerra, sukaldea...
- Auto bat, gure produktua saltzailearenganaino (Decathlon...) eramateko.
- Bi ordenagailu dauzkagu, lehenengoa bulegoan bezeroekin komunikatu ahal izateko eta bigarrena portatila webgunea eramateko.



### Giza-baliabideak

Produktua sortzeko bakoitzaren ezagutzez baliatu gara. Gure artean komunikazioa beti modu egoki eta onean erabili dugu, gure ideiak eta desadostasunak modu egokian adieraziz eta denen arten adostasun batera iritsiz. Proiektua hasieratik antolatu dugu, hau da, bakoitzaren eginbeharrak argi utzi ditugu, baina norbaitek laguntza behar izanez gero bere egitasmoan besteen laguntza jasoko du. Hauek dira bakoitzaren ekarpenak:

Marrubi eta Maddalen enpresaren antolaketaz arduratzen dira gehien bat, hau da, ekonomia jarduerak eta gainerako kudeaketa kontrolpean izateaz arduratzen dira, bai eta arazoren bat egonez gero hauei irtenbide bat emateaz. Hau horrela da, bien hauen abilezia planifikazioa eta antolaketa baita.

Haizea produktuaren diseinuaz bai-eta web orriaren diseinuaz arduratzen da. Honez gain, webgunea aktualizatzen eta eskaera berriak jakinarazten dizkigu. Web orrian irakurritako komentarioak kontuan izaten ditu eta taldeari azaltzen dizkio produktua hobetu ahal izateko. Hau horrela da, Haizeak gaitasun handia baitu gauzak txukun eta dotore antolatzeke bai eta gauzak egunean eramateko.

Hegoa eta Laura komunikazioaz arduratzen dira, bai kanpoko enpresekin baliabideak modu egokienean lortzeko bai-eta Decathlon bezalako enpresekin aliantza mantentzeko. Gainera, bezeroekin komunikatzen dira, telefonoz zein pertsonan, beraien desadosunen bat konpontzeko eta ideia berriak jasotzeko asmoarekin. Hau horrela da, biak erreztasuna baitute komunikazio sozialean eta bezeroen tratuan. Eta aldi berean gainerako enpresekin adostasun batera iristeko abilezia dute.

### Baliabide intelektualak

Ez dugu balialibe intelektualik, ez dugu ez patente ez gainerako eskubide berezirik gure produktuari dagokiola. Gerrikoa jada merkaturatua dago baina erabilpen berri bat eman diogu bero edo hotz poltsak eraman ahal izateko.

### Finantza-baliabideak

Proiektua aurrera eramateko gure aurrezkiak erabili ditugu, bakoitzak aurreztua zuen dirua eman du. Horrekin eta bankuak eman digun maileguarekin enpresa sortzeko aukera izan dugu. Honetaz gain bakoitzak duen ordengailu portatila erabili dugu web orria egunean eramateko.

Gure egoeran egoteagatik (gazteak izateagatik eta produktuaren erabilera berria izateagatik) zenbait abanataila eta eskubide aztertzen ditugu, erakude horiek eskaitzen digutena kontuan hartuz eta egokienak edo atsegineak aukeratuz. Horiei esker diru laguntza edo eskubide bereziak izan ditzakegu zenbaitetan.

